



Imanol Alvarez

◆ IRAKASLEA

Politikariak eta euskara

ORAIN hilabete inguru *Berria* egunkariak Eusko Legebiltzarrean egiten den euskararen erabilerari buruzko txostena atera zuen. Ondorio nagusia izan zen hitzaldien %77 gaztelaniaz egiten zutela parlamentariak. EH Bilduk erabiltzen du euskara gehien, PPK, PSE-EEK eta UPDk ia inoiz ez, eta EAJk gutxi. Nafarroako Parlamentuan egoera are dramatikoa da. Orain hogeita bosten bat urte Alemaniako aldizkari baterako idatzi nuen artikulu batean komentatzen nuen gay mugimendua oso modu bitxian hartzen gintuztela aintzat alderdiek: zenbat eta abertzaleago eta zenbat eta ezkerragokoa izan orduan eta kasu handiagoa. Politikarien euskararen erabileraz antzekoa esan genezake: zenbat eta abertzaleago eta zenbat eta ezkerragokoa izan orduan eta euskara gehiago.

Gizartean diglosia nagusi izanik, badirudi ulergarria datekeela politikarien artean ere diglosia nagusi izatea. Baina gauzak ez dira hain errazak. Aztertu behar genuke zergatik bizi garen amaigabeko diglosian. Arrazoiak ugari dira baina, laburbilduz eta sinplifikatuz, esango dugu zio nagusia dela mendetan boteretsuen aukera erdarak izan direla. “Boteretsu” hitzak ez du beti aberatsa edo karguduna esan nahi, baizik eta erreferente izan daitekeen edonor: aktoreak, kantariak, idazleak, kirolariak... Tes-tuinguru honetan politikariak, esan gabe doa, erantzukizun itzela dute.

Federiko Krutwigek proposatu omen zion Txillardegiri euskal herrietatik igandetan frakez jantzita eta euskaraz eginez paseatzeko (...). Fraka alde batera utzita, mezuaren oinarria gaur egun ere baliagarria da

xumeak, boteretsuek euskaraz egiten zutela ikusita, garrantzia emango zion euskarari eta euskaraz aritzeko lotsa galduko. Fraka alde batera utzita, mezuaren oinarria gaur egun ere baliagarria dela uste dut.

Estatistikak estatistika, denek daukate zeregina; ez pentsa inor salbuetsita gelditzen denik. Adibide gisa Otegiren *El tiempo de las luces* liburua dugu. Kalapita egon zen erdarazko edizioa euskarazkoa baino lehenago argitaratu zelako. Larriena, ordea, ez zen hori izan, baizik eta nolabait justifikatzeko Iñaki Soto *Garako* zuzendariak emaniko azalpenak iradokitzen zuena: “Arnaldok erdaraz duen zehaztasuna euska-

Federiko Krutwigek proposatu omen zion Txillardegiri euskal herrietatik igandetan frakez jantzita eta euskaraz eginez paseatzeko (...). Fraka alde batera utzita, mezuaren oinarria gaur egun ere baliagarria da

raz ez duela nabarmena da”. Nola da posible abertzale ei den norbaitek hori esatea eta lasai asko gelditu? Baztarririkak “*pixka bat es mucho*” dioen arren, bere burua euskalduntzat duen batek landu behar du bere hizkera, ez da-eta onartzeko modukoa mitin batean lagunekin poteoan egongo balitz bezala mintzatzea, edota agiriak lehenengo erdaraz idaztea eta gero beste norbaitek itzultzea. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Pello Esnal



Doinua: Prantxisku zer dakarrek.

Inaxiori lehen mendeurrenean

Neure agurra ere nahi diat igorri aurten denen ahotan habilen horri. Udazken epel hartan, zerua oskorri, bateratsu gintuan gu hona etorri: hik musuak gorri, nik hiru-lau orri. (Urrun bost elorri.) Erreka-zulo bera bion jatorri.

Gerrak ehoa gero nolatan eraiki, ez bada lan eginez eta galanki? Batzuetan Basarri, bestetan Iñaki, sutsu saiatu hintzen bertso eta irriti; luma ere beti dantzatu poliki, hauskorra izaki. Hitza arma soil eta hitza lubaki.

Hara, heu hildakoan, ezkilaren pena samurtu nahian egin nuen poema. Hau kantatzea izan daiteke onena, aurten behar bezala ospatzeko dena: heu izan hintzena, oraindik haizena -taupada ozena-, eta gu bion lehen mendeurrena. ■

2013ko Basarri sari-ko sorta irabazlea. Osorik QRan eta argia.com-en.

